

Karmele Muñoa Arrigainek, Bermeoko Udaleko idazkari akzidentalak, ziurtatzen dot, 2020-09-01(e)(a)n, TOKIKO GOBERNU BATZARRAK erabagi hau hartu dauela:

4. - AUZO-TAXI ZERBITZUA ERABILTZEAREN DIRU-LAGUNTZEN DEIALDIA ONARTZEA ETA ZABALTZEA.

Gaia

Auzo-taxi zerbitzua erabiltzearen diru-laguntzen deialdia onartzea eta zabaltzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: Azaroaren 17ko Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 8.1 artikuluari jarraituta, 2020ko apirilaren 24an Udal Osoko Bilkurak 2020-2022 urteetako diru-laguntzen Plan estrategikoa eta oinarri espezifikoa onartu zituen (2020ko uztailaren 8ko Bizkaiko Foru Aldundiko 129. zenbakian argitaratuak).

Bigarrena: Auzo taxien zerbitzu prestazioa eta diru-laguntzak kudeatzeko lankidetzara arautzeko, Bermeoko Udalak udal lizentzia duten Bermeoko udalerriko taxilariekin batera lankidetzara hitzarmena sinatzea onartu zuen Tokiko Gobernu Batzarrak 2020-07-28an eta 2020-08-05ean hitzarmena sinatu zen.

Hirugarrena: Bermeoko Udaleko 2020. urterako aurrekontuan eta diru-laguntzen 2020-2022 Plan estrategikoan aurreikusitako auzo taxi zerbitzurako bideratutako diru-laguntzen deialdia onartu eta zabaltzea behar da.

Argudioak

Lehenengoa: Diru-laguntza hauen xedea da Bermeoko auzoetan (Agirre, Almika, Arane, Arranotegi, Artika, Demiku, Gibelortzaga (San Pelaio), Kurtzio (Sarren), Mañu, San Andres eta San Migel) bizi diren herritarrak udalerriraino Auzo-taxi garraio zerbitzuaren bidez dauzkaten garraio kostuak murriztea.

Bigarrena: 2020ko Auzo taxirako zerbitzua erabiltzeagatik herritarren garraio gastuak ordaintzeko diru-laguntza deialdiak, 38/2003 Diru-laguntzen Legearen 2.1. artikulua betetzen du, honako hau kontuan izanda: programa honen bidez ez dira aurreikusten prestazio zuzenak, proiektuak edo jarduera bereziak diruz lagunduko dira eta interes sozialekoak izango dira.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E40004CE3100T3R0L718N9N2

Sinadurea eta data

MIREN KARMELE MUÑO A ARRIGAIN-Idazkari akzidentala - 01/09/2020
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 01/09/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 01/09/2020
10:19:10

EXPEDIENTE ::

2020IDA_ERA_0159

Fecha: 27/08/2020

Lekua: Bermeon

Erregistro unitadea:

Erregistro nagusia



Hirugarrena: Bermeoko Udalak 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorraren 3.1 artikulua arabera diru-laguntzak emateko ahalmena dauka.

Laugarrena: Deialdiaren oinarri espezifikoaren fitxan, diru-laguntza honen helburua honela azaltzen da, 38/2003 Diru-laguntzen Legearen 17.3.a):

- Auzo-taxiaren bidez auzotarren bizitza erraztea eta auzotarrak herrira urreratzea
- Garraio publikoko zerbitzu erregularra erabiltzerik ez daben landa auzoetako biztanleei herri barruan bidaiatzea (euren etxebizitzatik erdigunera eta alderantziz) erraztea.
- Udalerriko garraio publikoaren sektorea bultzatu nahi da, baita lurralde-oreka nahiz udalerriko mugikortasun iraunkorra indartu ere.

Bosgarrena: 38/2003 Diru-laguntzen Legearen 17.3.b) eta 17.3.e) artikulua arabera, diru-laguntzen onuradunak bete beharreko baldintzak oinarrietan jaso behar dira. Deialdi honetan diruz lagunduko diren herritarrak Auzo taxi txartela daukaten eta programa honetan ezarritako baldintzetako bidaiak egiten dituzten herritarrak dira.

Auzo-taxi txartelaren titular izateko eskaera fitxa eransten da, herritarrak bete beharreko baldintzak adierazita.

Auzo-taxien bidaien baldintzak Bermeoko Udalak 2020-08-05ean sinatutako hitzarmenean jasotzen dira:

"HIRUGARRENA: AUZO-TAXI ZERBITZUAREN IBILBIDEAK ETA ORDUTEGIA

- Zerbitzuaren ibilbidea Bermeoko baserri-auzoetatik herrira edota herritik auzoren batera izan behar da. Bermeoko udaletik kanporako zerbitzurik ez da egongo.
- Zerbitzua astelehenetik barikura eskainiko da, 07:30etatik 20:30era.
- Zapatuetan zerbitzua 08:00etatik 14:00etara eskainiko da.
- Gaueko zerbitzua larrialdi kasuetan soilik eskainiko da.
- Igandeetan eta jaiegunetan ez da auzo-taxi zerbitzurik egongo. "

Diru-laguntza hau eskatzeko ebazpen honen bidez onartutako eranskinean jasotako txartel eskaria aurkeztu behar da, eta bertan adierazitako baldintzak bete behar dira. Aurkezteko epea diru laguntza programa hau indarrean dagoen artekoa izango da.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E40004CE3100T3R0L718N9N2

Sinadurea eta data

MIREN KARMELE MUÑO A ARRIGAIN-Idazkari akzidentala - 01/09/2020
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 01/09/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 01/09/2020
10:19:10

EXPEDIENTE ::
2020IDA_ERA_0159
Data: 27/08/2020
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Seigarrena: 38/2003 Diru-laguntzen Legearen 17.3.d) artikulua arabera, diru-laguntza emateko prozedura: konkurrentzi lehiakorra baina konparaziozko baliospenik egin barik

Zazpigarrena: Diru-laguntzen zenbatekoa guztia 3.500€-koa da 2020. urterako, partida 0900-41400-4800103. Banakako zenbatekoak Bermeoko Udalak taxilariekin hitzarmenean sinatutako seigarren atalean sinatu modura izango dira (38/2003 Diru-laguntzen Legearen 17.3.f) artikuluan):

SEIGARRENA: AUZO-TAXI ZERBITZUAREN TARIFAK ETA BERMEOKO UDALAK BETE BEHARREKO BALDINTZAK

- Bidaiaren %65 udalak ordaindu beharko du.
- Bidaiaren %35 interesatuak ordaindu beharko du.

IBILBIDEA	BALIOA	UDALAK	ERABILTZAILEA
Herrigunetik 4 kilometrotara edo handik gitxiagora dagozan auzoak	9,00€	5,85€	3,15€
Herrigunetik 4 kilometrotatik gora dagozan auzoak	14,00€	9,10 €	4,90 €
Gauaz egiten diran bidaiak Larrialdiak baino ez	20,00	13,00 €	7,00 €

Zortzigarrena: 38/2003 Diru-laguntzen Legearen 17.3.g) artikuluan zehaztu beharreko instruktorea Lugintzako administrari laguntzailea da. Ebazteko eta jakinarazteko HILABETEKO epea egongo da, deialdiko eskaerak aurkezten direnetik zenbatzen hasita

Bederatzigarrena: 38/2003 Diru-laguntzen Legearen 17.3.i) artikuluari jarraituta, diru-laguntza justifikatzeko epea eta modua Bermeoko Udalak taxilariekin hitzarmenean sinatutako bosgarrena atalean sinatu modura izango dira

"BOSGARRENA: TAXILARIAK BETE BEHARREKO BALDINTZAK

- Bidaia hasi aurretik taxilariak egiaztatu beharko du erabiltzaileak eta honek eskatutako zerbitzuak Auzo-taxi programaren diru-laguntzak jasotzeko baldintzak betetzen dituela, eta horretarako honako pauso hauek eman beharko ditu, erabiltzaileak bete beharko dituenak diru-laguntza jaso ahal izateko:

— Auzo-taxi txartela: Erabiltzaileari Auzo-taxi txartela eskatuko dio, eta indarrean dagoela egiaztatu beharko du.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E40004CE3100T3R0L718N9N2

Sinadurea eta data

MIREN KARMELE MUÑO A ARRIGAIN-Idazkari akzidentala - 01/09/2020
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 01/09/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 01/09/2020
10:19:10

EXPEDIENTE ::
2020IDA_ERA_0159
Data: 27/08/2020
Lekua: Bermeon
Erregistro unitadea:
Erregistro nagusia



—Nortasuna egiaztatzea: Egiaztatuko du zerbitzua eskatu duen pertsona Auzo-taxi txartelak esaten duena dela.

—Ibilbidea: Egiaztatuko du erabiltzaileak eskatutako ibilbidea hiri-eremuan eta auzo-taxi programan aurreikusitako eremuaren barruan dagoela.

- Zehaztutakoa egin ondoren, taxilariak egindako ibilbide bakoitzeko formulario bat bete beharko du, taxi-gidariak eta erabiltzaileak sinatuko dutena (hiru ale).
- Taxilariak ale bat Bermeoko Udalarari aurkeztu beharko dio. Hilero jasotako formularioen aleak aurkeztu beharko dira Bermeoko Udalean. Formulario hauek Bermeoko Udalak emandako inprimaki eremuan bete beharko dira.
- Erabiltzaileak bidaia amaitutakoan diru-laguntzarekin finantzatzen ez den bidai kostua ordainduko dio taxi-gidariari. Ondoren, taxilariak aurreko puntuan aipatutako formularioaren ale bat eta faktura erabiltzaileari emango dio.
- Txartelaren erabilera desegokia egiten bada Bermeoko Udalarari jakinaraziko zaio zuzenean."

Hamargarrena: 38/2003 Diru-laguntzen Legearen 18. artikulua arabera, beharrezkoa den publizitatea emango zaio Auzo-taxi diru-laguntza deialdi honi.

Hamaikagarrena: Diru-laguntzen deialdiak onartzeko eta zabaltzeko ahalmena Alkatetzarena da, baina 2019ko ekainaren 21eko 2019/1.479 Alkatetza dekretu bidez Tokiko Gobernu Batzarrean delegatu zen.

Erabagia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAGI DAU:

LEHENENGOA: 2020ko Auzo taxirako zerbitzua erabiltzeagatik herritarren garraio gastuak ordaintzeko diru-laguntza deialdia onartzea eta zabaltzea, eta beharrezkoak diren eranskinak onartzea.

BIGARRENA: Deialdi honen publizitatea ematea Bermeoko Udaleko webgunean eta BDNS datu basean.

HIRUGARRENA: Ekonomia, Antolakuntza eta Luginza sail desberdinei honen berri ematea.

Eta honela izan daiten eta ondorio egokiak eragin daizan, ziurtagiri hau idazten dot, erabagia agertzen dan akta behin betiko onespeneraren menpean dagoela ohartarazota (Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E40004CE3100T3R0L7I8N9N2

Sinadurea eta data

MIREN KARMELE MUÑO A ARRIGAIN-Idazkari akzidentala - 01/09/2020
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 01/09/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 01/09/2020
10:19:10

EXPEDIENTE ::
2020IDA_ERA_0159
Data: 27/08/2020
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Juridikoa onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 EDaren 206. artikulua (arabera), Aritz Abaroa Cantuariense alkatearen aginduz eta oneretxiaz.

Orrri-oinean sinatzailea eta data



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E40004CE3100T3R0L7I8N9N2

Sinadurea eta data

MIREN KARMELE MUÑO AARRIGAIN-Idazkari akzidentala - 01/09/2020
 ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 01/09/2020
 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 01/09/2020
 10:19:10

EXPEDIENTE ::
 2020IDA_ERA_0159

Fecha: 27/08/2020

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:
 Erregistro nagusia

